

ATERA BIDERA! (ik. Mt 25,6)

ELEIZBARRUTIKO V. EBANJELIZATZE-EGITASMOA (EEE)

2014-18

Aurkezpena

Eleiza misino-egoeran

Frantzisko Aita Santuak askotan aitatu izan deuskun Ebanjelioaren pozak ebanjelizatzeko poza eta ilusinoa dakar beragaz. Bihotz-zabaltasunez erantzun gura deutsegu alkarri estu lotuta dagozan Jesusen dei bioi: *Atera bidera!* (ik. Mt 25,6) eta *Zoaze eta egin herri guztiak nire ikasle, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean bateatuz eta nik agindu deusuedan guztia beteten irakatsiz* (Mt 28,19-20). Gure bizitzan eta Eleizan Jesusek eten barik jarduteak emoten deutse zentzuna deioi: *Eta ni zeuekaz izango nozue egunero munduaren azkenera arte* (Mt 28,21).

IV. EEEa amaitzeaz batera, gure Eleizeak Espirituari entzuteko jarrera hartu dau, datozen urteetan nondik nora jo behar dogun bereiztu ahal izateko. Aita Santuaren burubidea gaurko munduan Ebanjelioa iragarteko, ohartarazpena izan da Eleiza osoarentzat, gure gizartean Ebanjelioaren lekuko izatearen poza eta ilusinoa berbiztu daigun eta atera gaitzan gure anai era arreben bila, eurok bizi diran inguruabarretara.

Aitatutako burubide apostoliko horrek misino-egoeran jarten dau Eleiza osoa. Gure Eleizbarrutiak be bat egin gura dau misiolari bultzada horregaz. Misiolari izateko aldatzen ari dan pastorgintza behar dogu. Gure elizbarrutiaren oinarriko ezaugarria izan da hau bere historian, Batzar Nagusiak azpimarratu ebanez. Gaur behin eta barrero sakon barriztatzea suertatzen jaku.

Jesus hil eta berbiztuagan agertzen jakun Jaungoikoaren maitasun salbatzailea da gure iragarpenaren bihotza, mamina. Bera da gaur egungo gizon eta emakumeek dabezan galdera, irrika, oinaze, estutasun eta ezbai guztien erantzuna. Azken batean, transzendentziari itxitako gizartea, gizarte zauritu eta urtenbide bakoa dala esan daiteke. Gizarteak ezinbestekoa dau Jaungoikoari atek zabaltzea. Aldi berean, maitasuna eta errukia dan Jaungoikoaren presentziaren sakramentu erara gizartean egotea da Eleizaren bokazino nagusia. Horregaitik, ezinbestekoa da atek zabalik dituan Eleizea: eleizek zabalik egon behar dabe beti; erakundeek prestasuna erakutsi behar dabe behin eta barrero eta fededun guztiek eta bakotzak bere bihotz-zabaltasuna erakutsi behar dau. Eleizak atek zabalik eukiteak beste zerbait be adierazoten dau: ausardia daua gizarteko plazetara joteko, apaltasunez eta kemenez, Jaungoikoaren maitasunaren misterioa

aurkezteko. Eleizari sufrimentuaren, etsipenaren eta larritasunaren bila ateratea jagoko. Eta, aldi berean, pentsamentu garaikideagaz, planteamentu sozial, ekonomiko eta politikoakaz, kultura, profesional, pentsamentu eta komunikabideen munduagaz bat egitea eragin behar dau.

Ebanjelioaren argia beharrezkoa da kanpoan iztearen kultura edota ahulenak ahaztea eragiten dabezan eta desbardintasunak eta bidebakokeriak gainditzeko ezgaitasun estrukturala erakusten daben sistema ekonomikoetan eta ideologia sozial eta politikoetan argi egiteko. Kristinau fededunek, euren sekulartasunaren arabera, mundu barriaren eraikuntzan lankide izan behar dabe askatasun ebanjelistik, hau da, gizakiaren bizileku duina izango dan, harearen gainean ez ezik harriaren gainean eregiko dan, salaketa profetikotik gizon eta emakume bakotxari beren-beregi jagokon duintasuna defendatuko dauan eta senidetasunezko eta benetako aurrerapenezko bide barriak bultzatuko dituan munduaren eraketan.

Bereizketa-aldia

Hausnarketa- eta bereizketa-aldia egin gura dogu Eleizbarrutiko Ebanjelizatze Egitasmo barria aurkeztu aurretik: Bilboko Eleizbarrutia, zer dinozu zeure buruaz? Apokalipsiaren liburuan aingeruak zazpi Eleizei egiten deutsezan bihotz-barritzeko deiak baliagarri izan dakikeguz testuinguru lez gure ibilpidea, orain zein egoeratan gagozan eta bihurtze ebanjeliko eta pastoralerako zein bide jarten jakun aurrez aurre benetan aztertze.

EEE barriaren lehenengo aldi honetan, otoitz egiteko, hausnartzeko, alkarrizketan jarduteko eta Espirituagan bereizteko konbitea egiten jako Eleizbarruti osoari. Izan be, Espirituak adierazoko deusku nondik nora jo. Une sendo eta erabagigarria da, danok bat eginda, Jaungoikoak gure Eleizari jagokonez dauan borondatea entzun daigun. Mendekosteko misterioa, komunioa eta batasuna da aniztasunean. Espirituak gure artean sortzen dituan karisma desbardinak ez dabe batasuna galarazoten, ezta gitxiago be, aberastasuna eta tresna bikaina dira Kristoren argia eta maitasuna agertzera emoteko eginkizun eta arlo anitzetarako. Karisma bakotxa “doe berezia” da, gaur egungo esparru desbardinetan sartzeko eta honeetara dana barritzen eta bizten dauan ur bizia eroateko gaitasuna dauan doa.

Otoitza eta ekintza

Funtsezko binomio bi dagoz Eleizaren ebanjelizazino-egitekoan. Lehenengo eta behin, otoitza – ekintza binomioa. Honen haritik, Frantzisko Aita Santuak hauxe dinosku: *ez dabe balio ez konpromiso sozial eta mistiko sendo bako proposamen mistikoe*

ezta bihotza eraldatuko dauan espiritualtasun bako diskurtso eta jarduera sozialek (EG 262). Benetako kristinau bizitzak lekukotasunera, konpromisora eta munduaren eraldaketara garoaz. Eta, alderantziz, benetako konpromisoa Jesukristo bizidunagaz bat egin dauan eta Espiritu Santuak bere esanetara bihurtu dauan bihotzaren iturri garbitik sortzen da. Otoitza eta ekintza benetako ikaslearen alde biak dira.

Komuninoa eta misinoa

Bigarrenik, komuninoa – misinoa binomioa dogu. Komuninoa misinoan sendotzen da. Eta, alderantziz esanda, misinoa antzua da komunino sakonetik sortzen ez bada. Honi jagokonez, Frantzisko Aita Santuak zera dino: *Kristinau alkarte batzuetan, eta baita kontsagrau batzuegan be, era batera edo bestera gorrotoa, banaketak, guzurak, txarto esateak, mendekuak, zeloak, kosta ahala kosta geure ideiak ezartzeko nahiak eta sorgin-ehiza zorrotzak emoten daben jazarpenak onesten doguzala ikusteak asko mintzen nau* (EG 100). Jaungoikoaren maitasuna da misiolari bultzadaren iturria eta komuninoaren iturria. Horregaitik, ez da bata gertatuko bestea barik. *Kristoren maitasunak bultzatzen gaitu* —dino San Paulo apostoluak— (2 Kor 5,14). Komuninoa sendotzea ezinbestekoa da misinoa emonkorra izan daiten. Frantzisko Aita Santuaren berbak erabiliko dodaz barriro be: *Lagundu deigula Jaunak maitasunaren legea ulertzen. Bai ona dana lege hori izatea! Ona da, benetan, alkar maitatzea guztiaren aurka!* (EG 101).

Egiteko iraunkorrak

Pastoral erabarritzea, kuriaren erabarritzea, Kristinau Sarbideko Direktorioa eta kaltetuenean, gizarte zuzentasunaren, bakearen eta adiskidetzearen aldeko konpromisoa jo daitekez, besteak beste, IV. EEEaren frututzat. Funtsezko osagaiak dira aterateko bokazinoa dauan Eleizara bihurtzeko pastorgintzarako. Bakotxa bere berezitasunean, Ebanjelioaren argia gure garaikideei eta gizarte osoari eroaren saiatzen da. Ezinbestekoa da eleizbarrutiko kide guztiok funtsezko egiteko honeetan esku-hartzea, eguneroko pastorgintzan finkatu daitezcan, jagokuna bihotz-zabaltasunez eta konfiantzaz ereitea dala jakinda. Jaungoikoak emongo dau frutua. Horixe gogoratzen deusku Frantzisko Aita Santuak: *Batzuetan iruditzen jaku gure lanak ez dauala ezelango emaitzarik emon, baina misinoa ez da ez negozioa ezta enpresa-egitasmoa be; ez da erakunde humanitarioa; ez da gure propagandari esker zenbat lagun bildu eban zenbatzeko ikuskizuna* (EG 279).

Bizi doguzan inguruabar honeetan, pegar izateko eskatzen jaku, gaur egungo basamortu espiritualean bizi diranei edaten emoteko (ik. EG 92). Bai metafora ederra, kristinau bokazinoaren oinarritzko alderdi lez, gatz, argi eta legamia izatera deituak izan garanontzat. Eleizea, aldi berean, bizitzako zaurituak, behartsuak,

gorputzean edo espirituan sufritzen dabenak, itxaropena eta bizitzaren zentzuna galdu dabenak hartu eta zaindu gura dituan ospitaleagaz alderatzen da. Ez dago errukiaren, biziaren eta itxaropenaren ospitale honetan lan egitea baino egiteko liluragarriagorik.

Ebanjelizazinoan gorputz eta arima aritu

Gure esku itzitako egitekoan barriro be ilusionatzeko konbitea egiten deusuet. Pozez beteko gaituan benetako doea da. *Zorion gehiago dau emoteak hartzeak baino* —esaten da Idazteunean— (Eg 20,35). Eta hauxe da, hain zuzen, zorionaren sekretu sakona. Munduko pentsamentuaren ustetan, eukitean eta metatzean dago zoriona. Eta, ikusten dogu, bai, jarrera horrek ekarri daikela poztasun iragankorra baina, sakonean, arduraz beteten gaituala, bihotza zimeltzen dauala, harrokeria eta tristura ereiten dituala eta banaketa eta bidebakokeriak sortzen dituala da egia. Doearen, eskaintzearen, norik bere burua emotearen logika da Jaungoikoak gure bihotzean sorrarazo dauana. *Ez deutse inork maitasun handiagorik adiskideei, bere burua hareen alde emoten dauanak baino* (Jn 15,13). Dinamika horretaz beteta dago Jaungoikoaren seme eta alaben bihotza. Bizi gaitzean beti poztasun honetan Kristoren doea dan Eukaristiaren Ogia, gure urratsak argituko dituan lanpara dan Hitzaren Ogia, fedea bizi dogun alkarrean eta giza bihotzaren eta Jaungoikoaren bihotzaren beharrezana dauanaren aldeko zerbitzuan zehazten dan Eleizako senide alkartasuna euskarriztat hartuta. Maria lagun izan daigula misinoan. Bera, Jaunaren mirabea, emakume sendoa, itxaropena eta adorea, ama arduratsua gure ibilian.

Mario Izeta Gabikagogeaskoa
Bilboko Gotzaina

1. Testuingurua

1.1 Gizarteko egoeraz

1. Gaurko gizartearen argazkia azken urteotako krisi sakonarekin bate ginda ulertu behar da. Alderdi honeek agertzera emoten deuskuz: pobretasunaren gehikuntza, etxebizitzari lotutako arazo larria, langabezia eta gizarte zatiketa. Begirada sinistedunak horra zuzendu behar dau nahitaez eta, ondorioz, alderdiok eragin esanguratsua izan behar dabe jarduera pastoralean.

Pobrezia

2. Pobretasunak gora egin dau krisiagaz eta eragin handiagoa izan dau aurretik be egoera ahulean egozanengan. Eraginik gordinena jasaten dabenak, seme-alabak dituan emakumezkoaz osatutako familiak, etorkinak eta ikasketarik ez daukienak dira. Gora egin dau, era berean, bazterketa larria jasaten daben personen kopuruak. 2008an, pobretasunari eta behin-behinekotasunari lotutako gabezia larrienek Euskal Autonomia Alkarteko herritarren %2,7agan eragiten eben eta gaur egun %6ak jasaten dau eragin hori. Berrogeta sei mila familia ingurutan bazterketa latza antzematen da.

3. Bizkaia —batez be Bilbon eta Ezker Aldean— da pobretasun-maila altuenak dituan lurraldea. Bizkaiko kostaldean bikoiztu egin dira krisiaren aurrean egozan pobretasun-mailak. Etxeetan bizi-baldintzak eskatu egin dirala antzematen da, batez be, sarrerak nabarmen jatsi diralako eta, ondorioz, aurreztutakoagaz edo senideen laguntzagaz aurre egiten jake eguneroko bizitzako gastuei. Aitatutako egoera nabarmenagoa da Bilbon eta Ezker Aldean, baina esanguratsua da baita Durangaldean gertatutako gehikuntza be.

4. Etxebizitzaren arazoa, langabezia eta osasunari lotutako arazoak dira bazterketa areagotzea eta gizarte zatiketa dakarrezan eragile nagusiak. Etxebizitzaren arloan, aitatzekoa da Eleizaren (alkarte erlijiosoak, Caritas, parrokiak) lana, bizilekua eskainiz falta daben gizabanako eta familiei.

5. Euskal Herrian, gizarte arazoei (tratu txarrak, menpekotasunak, arazoak justiziagaz) eta gizarte isolamenduari (familiak non bizikidetzatza hondatuta dagoan edo senideak erakundeetan daukiezan) lotutako faktoreen eragina nabarmentzen da bazterketazko egoeretan. Bazterketa larria jasaten daben gizon eta emakumeen %35ak dau aitatutako alderdi horreei lotutako arazoren bat.

Langabezia

6. Bizkaian dago Euskal Autonomia Alkartean langabezia dagozan herritarren %58a. Lurralde honetako langabezia-tasa %17koa da. Hamasei eta hogeta lau urte bitarteko gazteen %10a ez da ikasten ari eta ez dau lanposturen bat jadesteko

aukerarik. Gazteen artean, %40 baino gehiago dira lan barik dagozanak. Iraupen luzeko langabezia-tasa Europako mailetatik behera egon izan da historian zehar, baina krisialdiko urteetan europar batez bestekoaren gainetik kokatu da. Gizarte bikoizketa prozesuak gora egiten diharduala ikusten da, hau da: lanpostu gitxi-asko egonkorrak, eta ondo ordainduak, eta lanpostu askoz eskasagoak, lana egiteko aukera emon emoten dabenak baina, amaitzerakoan are eta egoera eskasagoan izten dabenak. Egoera hau bizi dabenei jagokenez, orainaldi ezegonkorri geroaldi ezegonkorra gehitzen jako, Gizarte Segurantzari egindako kotizazio baju eta irregularrengaitik; honen emaitza, jubilazioaren sasoiaren pentsino kaskarra jasotea izango da.

7. Gure kasuan, gizarte bikoizketaren arriskua batez be lanaren eskasia dakarren prozesuetan dago eta ez hainbeste errentaren banaketaren inguruko desbardintasunean, babes-sistemek, batez be DBEk (Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak) galga ipinten deuselako joera horri. Dana dala, gizarteak aberatsen eta pobreen arteko aukera-desbardintasuna handia dala antzematen dau.

Bestelako ekimen solidarioak

8. Hirurogeta hamahiru mila berrehun eta berrogeta hamasei laguni lana emoten deutesen 2.200 erakunde eta enpresek osatzen dabe ekonomia sozial eta solidarioa Euskadin; enplegu guztien %8a dira; persona horren artean, 5.836k minusbaliotasunen bat izan eta zentro bereziren batean jarduten dabe eta 638 gizarteratzerako bide diran enpresetan dagoz.

9. 2010-2012 aldian, ekonomia sozial eta solidarioak oro har beherakada arina izan dau bai erakundeen kopuruan eta bai langileenean be, hain zuzen ekonomia sozial tradizionalan (kooperatibak eta lan-alkarteak) gertaturakoaren parekoa. Baina ekonomia solidarioa eta gizarteratzerako bide diran enpresek soilik hartuta, gehitu egin dabe lanpostuen eskaintza. Arlo honetan, instituzioek emandako babesa ere aitatu eta azpimarratu behar da, gizarte osoak dauan konpromiso sendoa adierazten dau eta.

10. Azken batean, ekonomia sozialeko molde barriak hobeto aurre egiten ari dira krisialdiari. Eredu ekonomiko honek ekonomiaren ikuspuntu gizatiarragoa erakusten dau. Bideragarri lez azaltzen da baita testu inguru gatzetan be eta ekarpen esanguratsua egiten deutso gizarteari, enpleguari zein aberastasunari jagokonez.

Herritarren itxaropenak

11. Langabezia, egoera ekonomikoa eta klase politikoa dira herritarren kezka nagusiak. Honeen ostean, etxebizitzaren arazoa, ustelkeria eta iruzurra. Immigrazioa ez da arazo aitagarritzat jotzen.

12. Orokorrean, jenteak geroari begira dituan itxaropenak ezkorrak dira. Ehuneko 80aren ustez, urtebete barru egoera ekonomikoa bardina ala eskasagoa izango da eta langabezia dagozanen ehuneko 79aren ustez datoza 6 hilabeteetan lana aurkitzea gatxa ala ezinezkoa izango da.

13. Era berean, gizarte arazoak eta behin-behinekotasuna kroniko bihurtzeak itxaropena galtzea dakar eta askorentzat bizirik irautea da helburu bakarra. Orokorrean, jenteak apenas dauan konfiantzarik erakundeetan.

14. Herritarren mobilizazioak gora egin dau eta jenteak, gehien bat, honako ekimen politikoetan parte hartzeko joera dau: eskari batzuk sinatu, mezuak igorri, manifestazinoetara joan edo produktu batzuk erosi edo erosteari uko egin. Ez da hain ohikoa alkarteren batek deitutako batzarretara joatea. Bizkaitarren %81ak ekintza solidarioen bat egin dau azken sei hilabeteetan. Dohaintzak eta laguntzak emotea ohikoagoa da eta egiteko solidarioei denpora eskaintzeko joerea, txikiagoa. Esanguratsua da, halanda be, gizartearen zein Eleizaren ikuspuntutik, 2009tik 2013ra bitartean Caritaseko boluntarioak %38an gehitzea eta bazkideak %23ko gorakada izatea.

Bakegintza

15. Bakegintzari eta bizikidetasunari lotutako kontuak bigarren maila batean kokatzen dira argi eta garbi. Halanda be, Eleizak bake eta adiskidetzaren egiten dauanaren aurrean autorpena eta itxaropenak dagoz. Herritar gehienek era guztietako eta era guztietan gaitzesten dabe indarkeria baina ez dabe Bake eta Bizikidetasunerako Eusko Jaurlaritzaren egitasmoa ezagutzen. Gizartean, adostasun gitxiago dakar presoen gizarteratzearen gaiak. Herritarren %53ak positibotzat jotzen dau biktimen eta ETako kide ohien arteko topaketen bidez bakeari egindako ekarpena.

Hoztasuna erlijinoari jagokonez

16. Axolagabe, agnostiko edo ateo agertzen diranen kopuruak gora egin dauala adierazoten dabe azken urteetako datu soziologikoek. Bizkaiko herritarren %54 inguruk katolikutzat dau bere burua eta horreen artean gutxiengo batek baino ez dau bere burua praktikantetzat hartzen. Sekularizazioa hedatuz doala nabaritzen da, hau da, jentea fedetik aldendu egin dala, jarduera erlijiosoak behera egin dauala, batez be gazteen artean. Kristinau alkartetik eta fedetik aldendu izan dan askok eta askok lehenago kristinau sarbideko prozesuetan eta mobimentu edo alkarde desbardinetan parte hartu izan dau.

17. Beraz, Jaungoikoa, herritar askorentzat, ezezaguna edo arrotza da. Hori, aldi berean, Barri Ona molde barriakaz, arpegi barriakaz, bultzada barriagaz aurkezteko eragingarri, sustagarri lez hartu daiteke; barrero be Barri Ona proposatu gura dauan eta “Jaungoiko ezezaguna” (ik. Eg 17,22-31) ezagutzera

emoteko plaza barrien bila diharduan Eleizaren jarduera ebanjelizatzaileako aukera barria.

1.2 Eleizaren egoeraz

18. Lekuko Eleiza, berrogeta hamar urtez Vatikanoko II. Kontzilioak proposatutako barriztapenak fase desbardinetan onartzen saiatu da. Ibilbide horretan, garrantzia handikoa izan zan Batzar Nagusia. Orain, une erabagigarrian aurkitzen da. Kristinau alkarteak bere pentsamolde, antolaketa eta pastoral jardunbidean aldaketa garrantzitsuak beharrezkoak eta preminazkoak dituala antzematen dau. Kristinau fedea eta Eleizak aspalditik ez dabe jakin-minik bizten herritar asko eta askorengan. Fedearen transmisioa askotxo makaldu da. Gizarteko arlo askotan Barri Ona arrotz lez, lekuz kanpo lez agertzen da. Kristinau alkarteak Ebanjelioan oinarritu eta esanguratsu eta sinisgarri izan gura dau barriro be Bizkaiko gizartean.

Eleiz komuninoa

19. Eleizako alde batzuetan komuninoa ez dago bere onenean, makaltasunagaitik eta oraintsuko gizarte eta eleiz historiak eragindako zauriengaitik. Hartu-emon gitxi dago Eleiza ulertzeko eta jarduera ebanjelizatzailea garatzeko era desbardinaren artean eta, ondorioz, sakabanatzea eta eleizbarrutiko kidesun-senik eza azaldu dira. Egoera horrek aitzindaritzatza pastora eskatzen deutse gotzainari eta abadeei, batasuna gauzatzeko arduradun nagusioi.

20. Ez dogu ahaztu behar, bestalde, alderdi positibo lez, ekimen desbardinak jarri izan dirala martxan sarean eta komuninoa garatu izan dala pastoral barrutietan eurretako ekipo ministerialen bitartez; gainera, aitzatekoa da eleizbarrutian txertatuta dagoan hainbat erakundek egiten dauan lana.

Kezka geroari begira

21. Urteotako joereak epe ertainera ze etorkizun izango daben galdetzera daroaz alkarteak eta arduradunak. Egoerea, kezagarria da —leku batzuetan estu eta larria —, inguru txikietako parroketan gertatu daitekenaz. Abadeen kopurua da adierazleetako bat. Gaur egun, 285 abade sekular dagoz eta 20 erlijiosok daukie pastoral kargua eleizbarrutian: 200, 65 urtetik gorakoak dira eta horreen artean 145ek 75 urtetik gora dabez. Eleizbarrutian 5 diakono be badagoz. Halanda be, sakoneko auzia beste hau litzateke: ia, kopuru, prestakuntza eta prestasunagaitik, kristinau alkarte barria eratzeko edo dagoan edo noizbait egon izan dan lekuan eusteko gauza dan fededunik legoken. Honen haritik, laikoen komunidade eta alkarteei jagokezan datu orokorrek be beheranzko joerea erakusten dabe. Guzti horren arabera, eleizbarrutiak une garrantzitsua bizi dau oraina planifikatzeko eta geroa prestatzeko.

22. Jarduera ebanjelizatzailearen bultzada eta erantzukizuna dagoeneko ez datza abadeengan bakarrik, euren bokazioa alkarteen zerbitzura zehazten diharduen

bizi-egoera desbardineta personengan baino. Benetan, beharrezkoak dira abadeak jarduera ebanjelizatzailea suspertzeko eta Eukaristian, non Eleizeak bere burua agertzeraren emon eta osotasuna jaden dauan sakramentuan, buru izateko, baina eurakaz batera beste ministerio eta karisma batzuk suspertu behar dira alkartearen zerbitzura. Abade ministerioaren garapenean eta alkartearen sustapenean aldaketak eskatzen eta eragiten ditu horrek. Ez da nahikoa dagoanari eustea; ezinbestekoa da pentsamoldea bera, gure ohiturak eta gure pastoral apustuak misiolari ikuspuntutik eraldatzea.

Presentzia gizarte-karidade arloan

23. Eleizaren karidadezko ekintza bere oinarriko osagaietariko bat da. Hemengo eta edonongo behartsuenen ardura erakusten dau. Dimentsio horren aurpegirik nabariena Eleizbarrutiko Caritasena da. Beharrian gorrian aurkitzen diran taldeei lagunduz ganera, gizarte zuzenago eta solidarioagoaren alde jokaten dau, pertsona guztiak euren dagokien duintasunaren arabera bizi eta hazi ahal izan daitezkan.

24. Bai gizarteak eta bai kristinau alkarteak Caritasen lanaren aurrean agertutako jarrera guztiz positiboa izan da, 2008an hasitako krisialdiaren aurrean. Bolondresen kopuruak eta diru-laguntzek, biek egin dabe gora. Caritasek egindako lanik garrantzitsuenetariko bat hauxe izan da: hainbat arlotan zabalduzko ekimen instituzionalak. Honen artean, honako honek aitatu daitezke: drogazalatasuna, lanaren sustapena, etxebizitza, pertsona nagusien babesak, familia, merkataritza zuzena eta baztertuak gizarteratzeko ahalegina. Horren bitartez, benetako “sare solidarioa” sortuaraztu dau Caritasek. Era berean, “karidadearen sormena” bizkortu dau. Honek indar eta eragin oso esanguratsua dauka, administrazioek eta Bizkaiko hainbat eta hainbat alkarte sozial eta solidarioek osotzen daben sare zabalagoan, honeetariko zati on batek kristinau jatorria dabela kontuan izanik.

25. Nazio arteko solidaritzari dagokionez, elizbarrutiko erakundeek euren aurrekontuetako %1a horretarako emateko deia hartu dabe aspalditik. Aparteko larrialdiak datozanean Caritasek antolatzen dituen kanpaina berezietaz ganera, arlo honetan zelan ez aitatu Eleizbarrutiko Misino Ordezkaritzaren eginkizuna, edo munduan zehar sustraitutako hainbat laiko eta erlijiosoz osotutako alkartearen lana, edo Misioetako Pontifize-Ekintzak (OMP delakoak) eta Esku Elkartuak egiten dabena edota hainbat eleiz alkartek daben gero eta garrantzia handiagoa.

Presentzia kulturaren

26. Bereziki esanguratsua da Eleizaren presentzia instituzionala hezkuntzaren arloan (Eleizbarrutiko eta Kristau Eskolako ikastetxeak, Irakasle Eskola Unibersitarioa, Eleizbarrutiko Teologia eta Pastoraliza Institutua, Deustuko Unibersidadea). Bizkaiko eskola-ume eta gazteen erdia inguruk ikasten dau horreen geletan. Erronka handiak eta aukera nabarmenak dakar horrek umeen

eta gazteen ebanjelizazinarako eta baita helduen eta profesionalen ebanjelizazinarako be.

27. Eleizbarrutia kulturaren beste arlo batzuetan be agertzen da bere erakundeen bitartez. Besteak beste, komunikabideetan, euskal hizkuntza eta kulturaren, ondare artistiko eta bibliografikoan, bistakoa da eleizbarrutiaren ekarpen kulturala. Bertan zehazten da kristinau fedearen eta kulturaren arteko etenbako hartu-emonak.

Laikoen partaidetza

28. Boluntarioak dira, batez be laikoak, Eleizaren kapital nagusia. Euren eusten deusie alkarreei, bertako bizitzan parte hartuz eta zerbitzu desbardinak eskainiz. Horrezaz gainera, gizarte ekimen ugarian parte hartzen dabe. Halanda be, arlo honetan belaunaldi gazteetakoek ez dabe gaitasun handirik erakusten erreleboa eta konpromisoa hartzeko.

29. Emakumezkoak dira gehien bat alkarreetako bizitzaren eta zerbitzuaren euskarria. Katekesia, gizarte-karidade zerbitzua arlo desbardinetan, liturgia, alkarreak, komunitadeak eta mobimenduak dira horren erakusle. Euren presentzia eta partaidetza suspertu beharra dago kristinau alkarreko bizitza eta misinorako garrantzitsuak diran erabagiak hartzerakoan.

30. Alkarreen zerbitzurako laikoak eskatzen badira be, ezin da ahaztu laikoen bokazino apostolikoa gizartean gauzatzen dala, gatz eta argi izaten saiatuz. Euren bokazinoa familian eta lan, gizarte eta politika arloetan indar barrituaz proposatu beharra dago. Barruko beharrianek ez dabe monopolizatu behar laikoen zerbitzua. Laikoek berezkoa dabe euren sekulartasuna, euren presentzia sozial, profesional eta politikoa, euren askatasun ebanjelikoa eta euren lekukotasun eta konpromisoa Jaungoikoaren Erreinuaren eraikuntzaren alde. Giza errealdade guztietan, badago fededun lakikoak Barri Ona hots egitera nora bialdu.

Bizierak kontsokratuko komunitadeak

31. Prozesu orokorragaz bat, kopuruari jagokonez beheranzko joera antzematen bada be, biziera kontsokratuko komunitadeetan sarritan sortzen dira barriztapen eta gaurkotzerako bultzada eta erabagiak, lekuko Eleizaren mesederako diranak. Honen haritik, komunitade honen karisma batzuen barruan sortutako laiko izaerako alkarre eta komunitadeak nabarmendu beharra dago.

Lehentasunak jarri beharra

32. Gizarteko erronkek (pobretasun zahar eta barriak, gizarte bazterketa, etxeke —genero— indarkeria, immigrazinoa, gazteen egoera) zein eleizakoek (espiritualtasun sendo eta ondo finkatutakoaren beharra, gar apostoliko eta

misiolariaren beharra, fedea familian eta belaunaldi barrien artean transmititzeko gaitasuna, agerpen publikoa, gizartea Jaungoikoaren Erreinuaren arabera eraldatzea, laikoen heziketa, ardurakidetasuna eta komuninoa) kristinau alkartearen gaitasunak gainditu egiten dabezala antzematen da eta, ondorioz, Espirituaren gidaritzapean bereizketea egiteak ezinbestekoa emoten dau. Parrokietako, pastoral barrutietako eleizbarrutiko zerbitzuetako arduradun askok eta askok gaur egungo inguruabarretan ebanjelizazioaren eskaerei erantzungo deuten alkarte, komunitate, mobimentu eta jarduerak suspertzeko eskatzen dihardu. Lehentasunak jarteko gaitasun gehiago beharko litzateke. Danari erantzun guran, eragileak etsipenez betetzeko eta pastoral zerbitzua ahultzeko arriskua dago.

Gizartearen Eleiza ulertzeko modua

33. Gizartean, Eleizbarrutia, Eleiza samariar lez, laguntzeko prest dagoan Eleiza lez, beharrezanean dagoanarentzat eskuragarri dagoan Eleiza lez ikusten da. Bere gizarte-karidade zerbitzuak autorpen zabala jasoten dau gizarte mailan. Solidario eta konprometitu lez ikusten da. Herritar askok nahiko leuke Eleizeak balio batzuk zabaltzea, jarrera eta jokabide zuzenen bidez eragile ekonomiko hutsetatik harago doan krisialdi hau gainditzeko.

34. Beste alde batetik, Eleiza zerbitzurako prest dagoala autortuta be, gehiago aurrea hartu eta gizabanako eta gizataldeetara hurreratu daitela gura da, zain geratu beharrean. Gardentasun, soiltasun eta egitasun gehiago eskatzen da, ezinbesteko barrikuntza, egintzetan eta hitzetan bat etortea, entzuteko gaitasuna. Abegi, hurkotasun eta konpromiso gehiago be eskatzen da. Kristinau alkartetik bertatik zein kanpotik zailtasun handiak ikusten dira gazteen artean eta euren kulturen txertatzeko. Gazte askori lagundu izan jako sarbideko ibilpideetan eta kristinau seneko eskoletako eremu desbardinetan baina tarte handia dago euren eta Eleizaren artean.

Frantzisko aita santuaren eragina

35. Bidezkoa da Frantzisko Aita Santuaren zeinu, berba eta erabagiek, batez be *Evangelii gaudium* burubide apostolikoak, han eta hemen harrera ona eta zabala euki dabela aitatzeta. Bizimodu soil eta apalerako egin dituan proposamenak eta bazterketaren salaketak asko baloratzen jakoz. Itxaropenak biztu dabez eta baita barritzeko eta misiolari bultzada barrirako nahiak be kristinau alkarteetan.

36. Zehatz-mehatz, familiari buruzko Sinodoa deitzeak eta kontsulta eta prestaketarako prozesuak interesa biztu dabe, datozen urteetan arlo honetan sortu daitekezan pastoral proposamenak ezagutzeko eta onartzeko.

1.3 Aurreko Egitasmotik ikasiz

37. 2013/14 pastoral ekiturtea IV. EEEaren eta orain aurkezten danaren arteko zubia izan da. Aldi honetan, aurreko egitasmoaren ebaluazioa eta proposamen barria egin da, lurraldeetan galdeketa egin ondoren eta eleizbarrutiko kontseiluetan (Abade, Pastoral eta Gotzain Kontseiluak) izandako alkarrizketa eta eztabaida sakonen ostean. Prozesuan izandako parte hartze zabalak erakusten dau Egitasmo honek jakin-mina biztu daua, eleizbarrutian epe labur eta ertaineko ebanjelizazioan bereziki garrantzitsutzat jotzen dan une honetan.

38. IV. EEEaren ebaluazioa egiterakoan jasotako gogoeta nagusiak jasoten saiatuz, lorpenak eta mugak bereiztu beharra dago. Lehenengo artean, honeek nabarmentzen dira:

- Egitasmoek eleizbarrutiaren aukera ebanjelizatzailea gogoratzeko eta zehazteko balio izan dabe.
- Aurrerapen esanguratsua izan da erabarritzean.
- Egitasmoak pastoral jardueraren barrikuntzarako ekimenak babestu ditu eta lankidetzak suspertu dau.
- Hezkuntzaren arloa gero eta gehiago inplikatu izan da eleizbarrutiko egitasmoetan.
- Eleizbarrutiko Alkartasun Zeinuak balorazino ona izan dau eta Egitasmoa agertzera emoteko balio izan dau.

39. Beharbada ahuldade eta mugetatik gehiago ikasi daiteke geroari begira. Horreei jagokenez, ebaluazioan ondorengo gogoetak nabarmendu izan dira:

- Kasu askotan, Egitasmoa oraindik ez da pastoral egitekoaren erreferentzia nagusia edo inspirazino-iturria. Batzuetan, gehigarri lez ikusten da. Gatxa da aukeratzea eta lehentasunak jartea.
- Misiolari alderdi hutsa ahula da eta gatxena da praktikan nork bere gain hartzeko.
- Alde handia egon da asmo eta itxaropenen eta benetako aukera eta baliabideen artean.
- Batez be pastoral barruti eta parrokiatarako pentsatuta egon da, eta ez hainbeste alkarte txiki eta mobimentuetarako.

40. IV. EEEaren ebaluazioak etorkizunerako jarraibide nagusiak jasotea ahalbideratu eban. Soiltasuna eta errealismoa eskatzen zan batez be, egitasmoa

martxan jarriko eta garatuko dabena personak eta alkarteak kontuan hartuta; lehentasunak gitxi eta argiak izan eitezala. Domeketako batzarrera iristea gura zan. Ekintzak proposatzea ez ezik, prozesuak eratzea komeni zala aitatzan zan.

41. Testuinguru honetan sortzen dira Egitasmo barriaren jarraipena eta barritasuna. Gehiengoaren ustez, *egitasmoa*, hau da, eleizbarrutiak bere misino ebanjelizatzailea garatzeko bere egindako arrazoiak, helburuak eta bideak aurkeztuko dituan pastoral tresna, beharrezkoa da. Duda barik, *eleizbarrutikoa* izan behar dau, hau da, Eleizako errealidade desbardineta, pertsonal zein komunitarioetan izan behar dau eragina eta euren arteko artikulazio eta komuniorako balio behar dau. Honen haritik, Egitasmoaren xedea pastoral egitekoaren inspirazio-iturri izatea da, osoko pastoralgintzari arnasa eta norabidea emongo deusan tresna. Era berean, *ebanjelizatze* egitasmoa nahi da, mantentze-lanetan oinarritutako planteamentuetatik misiolari erako proposamenetara joz. Aitatzutako asmoetan, honako Egitasmo hau aurrekoen jarraipen lez ulertzen da.

42. Beste alde batetik, IV. EEEaren ebaluazioa egiteko eta Egitasmo barria prestatzeko aldiak balizko geldotasunak gainditu eta alderdi barri eta nabarmenak sartu behar dirala ikustarazo dau. Hainbat eragileren emaitza izan da: Egitasmoa suspertzearen ardura daukien pastoral eragileen mugez eta makaltasunaz jaubetza; gauza larregitan gabilzala eta, beharbada, ebanjelizazioaren funtsezko alderdia alde batera izten dogula ikustea; lehentasunak jarteko zailtasunak, hau da, gauzak birkokatzeko, ordenatzeko edo “betikoa eta betiko moduan” murrizteko zailtasunak; gizartean eta Eleizan aldi barria bizi dogula uste izatea. Azken urteetan, egundoko aldaketa gertatu da gizartean eta Eleizan eta, ondorioz, orain arte proposatu eta garatu izan diran egitasmoetan aldaketak sartzea eta datozen urteetarako pastoral dinamika hausnartzea beharrezkotzat jotzen da.

2. Egitasmoaren sena

43. *Evangelii gaudium* (EG) bere Burubide apostolikoan *lekuko Eleiza baxotxari bereizketa, arazte eta erabarritze prozesu ausartari* (EG 30) ekiteko konbitea egiten deusan Frantzisko aita santuaren jarraibideak kontuan hartu nahi ditu Egitasmo honek. Horrela, gure elizbarrutiaren bizitza barriztu nahi dau, bidera aterateko, bihurtze pastoralerako, bat egiteko prest dagoan Eleizarantz jo nahiez.

44. Goiburuak —*Atera bidera!*— Egitasmoaren sena jaso gura dau. Ebanjelizazioaren misiolari alderdia nabarmendu gura da, deialdia, iragarpena eta fede proposamena sendotu. Barne hartzen dau, beraz, aitatu barri dogun aita santuaren Burubidearen xede nagusia eta aurreko Egitasmoaren ebaluazioan egiaztatutakoa, hau da, helburu misiolaria izan zala gehien landu zana eta, aldi berean, emaitzarik eskasena izan ebazana.

45. Goiburuak egiten dauan konbitea hiru jardunlekutan zehazten da, bananduta ez ezik, euren artean nahitaez lotuta dagozan hiru arlotan: espiritualtasunarena, alkartasunarena eta komuninoarena. Lehenengoa, Jesukristogaz bat egitetik sortzen da, goiburu lez aukeratu izan dan ebanjelioko aitamenari jarraituz: Jauna da heltzen dana, datorrena eta bere bila ateratea eragiten dau. Bat egite hori da kristinau nortasunaren, bere lekukotasun eta misinoaren oinarria. Honen haritik, lehenengo iragarpena, bihotz-barritzeko deia eta katekumenotzan txertatzea zelan egiten dan aztertu egin behar da. Espiritualtasun sendoa lantzeko bideak jarri behar dira, bizitza bera aldatu daian eta Jesusen benetako ikasle eta misiolari bihurtu gaizan. Gure Eleizako plataformen gaitasun ebanjelizatzailea, euren ingurura egokituta dagozan ala ez, jarritako helburuak, eragileak, egitarauak, lagungarriak, bitartekoak, metodoak, estiloak... zertan diran be aztertu beharko da.

46. Bigarren arloa, Frantzisko aita santuak *bizitzaren kanpoaldeak* (EG 20, 30, 46, 53, 59, 63, 191 eta 288) deitzen dituanetara jotean zehazten da; hortxe, era guztietako txiro eta behartsuengan, sufritzen dabenengan eta bilatzen diharduenengan bereziki mamintsu eta ageriko gertatzen da Jaungoikoaren arpegia. Gaur egun gure anai eta arrebek hainbeste zauri eta gabeziaren ikuskizun mingarria dogu aurrez aurre. Gabezia materialak, txirotuengan, behartsuengan, bizileku bakoengan. Gabeziak lan, itxaropen eta etorkizunari begira. Afektibitate-gabeziak etxeko —genero— indarkerian, gaixoen eta zaharren bakartadean. Gabezia espiritualak Jaungoikoaren maitasuna ezagutzen ez dabenengan, etsipenean edo porrot-sentsazioan bizi diranengan, bizitzari zentzunik aurkitzen ez deutesenengan, traizioa, desilusinoa, samintasuna, ezinikusia bizi izan dabeanengan. Gabezia sozialak duintasuna autortzen ez jakenengan, bertan behera itzitakoengan, “kanpoan izten dauan kultura” jasaten dabenengan, euren beharrian eta sufrimentuak inork kontuan hartu barik bizi diranengan.

47. Hirugarren arloak eleiz komuninoa sendotu gura dau, danon arteko, fededunon eta alkarte desbardinaren arteko bategitea bultzatu, aniztasuna batasunean biziz Espirituaren doe lez; Mendekoste jarduera ebanjelizatzaileko. Komunino hau etenbako bihotz-barrizetik, besteagana zabaltzetik, bestea neurea be badala eta familia bereko kide garala eta bertan testigantza eta ebanjelizazinarako beharrezkoak diran doe eta karisma desbardinak buztartzen dirala jaubetzetik.

48. Egitasmoak eskaintzen deuskuzan aukeren haritik itauna sortzen da: Nork? Bidera atera, bai, baina, nogaz? Beste era batera esanda, ezinbestekoa da eleizbarrutiko errealidadea, orokorra eta lekuan lekukoa ezagutzea. Bereizketarako aldia izatea komeni da, misinoari itxura emoteko eta ekimen eta konpromisoak errealismoz erabagiteko. Hau dala-eta, begitantzen jakun guztia posible dala pentsatzea besteko kaltegarria da Jaungoikoak giza bitartekotza guztiak alde batera itzita jarduten dauala sinistearen espiritualismoa.

49. Eleizbarrutiak aitatutako hiru arlo horreetan ekintza areagotzeko deia antzematen dau gaur batez be, bere nortasuna eta sinisgarritasuna, Bizkaiko gaurko gizartean, esparru horreetan jarten dala jokoan sinistuta. Eleizako erakundeek eta pastoral eragileek hiru arlo honeek bere egin ezkerro, errazagoa izango da ekintzak errealismoz eta osoko ikuspenaz zehaztea eta egokitzea.

50. Ezinbestekoa da egitea; eta egitea, erronken konplexutasunak eta autortutako makaltasunak atzera-egitera eta etsipenera eroan gaikiezan unean, gainera. Ez gaitez an hilobiaren psikologian jausi, Frantzisko aita santuaren berbetan: *Errealidadeagaz, Eleizagaz edo euren buruagaz etsia hartuta, deabruaren elixirrik estimaduena izango balitz lez, bihotza harrapatzen dauan tristura melengari, itxaropen bako tristurari lotzeko etenbako tentazinoa bizi dabe. (...) Ez deiguela poztasun ebanjelizatzailea ostu!* (EG 83). Ez gitxitan, pastoral eragileek eurek, gehiegizko sakramentu-zerbitzuek eta antolaketa-gestinoek nekatuta, dagoanari eustea nahikoa dala pentsatzeko tentazinoa dabe, logika ebanjelikoan, gordetea galtzea dala eta proposatzea irabaztea dala ahaztuta. Eleiza izatea, ateratea, lekuko izatea da (ik. EG 19-24).

3. Goazen! – Martxan jarri

Egitasmoaren hasieraa

51. 2014/15 pastoral ekiturtearen hasierak barritasun batzuk dakar. Ebanjelizatzearen Eleizbarrutiko V. Egitasmoa martxan jarriko dan pastoral ekiturtearen hasiera honetan, eleizbarruti lez ekingo deusagu ibilpideari, Espirituak dinoskuna entzunez. Horretarako, aurkezpen eta hasierako jardunaldia antolatu dira.

2014-2015 pastoral ekiturtea

52. V. Egitasmoaren lehenengo urtea bereizketarako izango da, gizarte eta eleiz errealidadeari sinistedun begiez begiratzekoa, Espirituak alkarte bakotxari eta lekuko Eleiza osoari egiten deutsezan deiak bereizteko, horreek osatzen dabezanak kontuan hartuta. Lehenengo urte honetan, gure nortasuna bizi izandakoagaz eta gura dogun geroagaz alderatuko dogu. Bidera atera behar dogu, hau da, hartu-emona hobetu behar dogu Jaungoikoagaz, behartsuakaz eta gure artean. Bereizketak, dei horri garanetik eta izan gura dogunetik erantzutea dakar: Nor gara? Zelan gagoz? Zelan ikusten dogu gizarte eta eleiz errealidadea sinistedun ikuspuntutik? Zelan ikusten dogu gure oraina eta gure geroa epe laburrera? Nondik hasi? Zer da funtsezkoa? Zerk berbiztu behar dau? Zer zaindu behar dogu? Zer itzi? Zelan antolatu? Zelan eutsi gure misiolari jarduerari?

53. Laster bialduko da gidoi landuago eta osoagoa, kursoko hausnarketa mugatu ahal izateko, *Evangelii gaudium* Burubide apostolikoan jasotako argibide eta proposamenakaz batera. Sei gidoi izango dira, azarotik apirilera lantzeko eta

orduan ondorioak batuko dira. Egia esan, leku batzuetan goian aitaturako galderetako batzuk erantzunda dagoz eta horreen inguruko “jarduera onak” dagoz. Dalako leku horreetan, gaurkotu eta konpartitu egin beharko litzatekez, egitekoa batera egin daigun. Gotzain Kontseiluak jasoko ditu hausnarketak eta ekimenak, eleizbarruti osoari jakitera emoteko.

4. Zoaze! – Egitasmoaren garapena. 2015-2018 aldia

54. Hurrengo urteetan, errealidade bakotxak lehenengo urte honetan bereiztutakoa eta proposatutakoa garatuko da. Gotzain Kontseiluak jardunbide nagusiak aurkeztuko ditu, proposatutakoa artikulatuz, eta garapenerako lagungarriak eskainiko ditu.

Egiteko iraukorrak

55. Hemendik aurrera begira, lekuko Eleizaren misinorako garrantzitsutzat jo izan diran lau eginkizun iraukor dagoz: Kristinau Sarbidearen Direktorioa ezartea; bake eta adiskidetzaren inguruko ardura lantzea; pastoral erabarritzea aurrera egitea eta pastoral barrutiak finkatzea, behar dan lekuetan parroketako erreferenteen inguruko bereizketa egiteaz eta izendatzeaz batera.

56. Aurreko Egitasmoan balorazino altua jaso dauan Eleizbarrutiko Alkartasun Zeinua, datozen urteetan jarraipena merezi dauan balabide egokia da.

Bilbao, 2014.eko uztailaren 4a
San Balendin Berriotxoaren eguna